

Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren 3174/2015 FORU AGINDUA, apirilaren 17koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 9ko 163/2014 Foru Dekretuaren III. Tituluan, —«Enpresa abiarazteko egin behar dituzten inbertsioetarako laguntzak, gazte ekintzaileentzat»—, jasotako diru-laguntzen deialdia arautzen da. Foru dekretu horren bidez, langabezia eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri dira.

2014ko abenduaren 9ko 163/2014 Foru Dekretuaren bidez, langabezia eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta pertsona horiek enpresak sortzea sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta, dekretu horren III. tituluan, enpresa abiarazteko egin behar dituzten inbertsioetarako laguntzak, gazte ekintzaileentzat, aurrez ikusten dira.

Foru dekretu horren 2. azken xedapenak xedatzen du egin beharreko diru-laguntzen deialdiak Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez egingo direla.

Horregatik, programa hori 2015eko ekitaldian kudeatzeko eta hartan jasotzen diren diru-laguntzak lortzea ahalbidetzeko, diru-laguntza horien 2015 urterako deialdiaren araudi zehatza ezarri behar da.

Adierazitako aurrekarietan oinarrituta, honako ebazpen-proposamen hau egiten da:

EBAZPEN-PROPOSAMENA

1. artikulua.—*Diru-laguntzen deialdia*

Foru agindu honen bidez, abenduaren 9ko 163/2014 Foru Dekretuaren III. tituluar dagokionez «enpresa abiarazteko egin behar dituzten inbertsioetarako laguntzak, gazte ekintzaileentzat» deialdia onartzen da. Foru dekretu hori 2014ko abenduaren 19ko «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu zen, 243. zenbakian.

Foru dekretu horretako eta araudi honetako xedapenek arautuko dute deialdia.

2. artikulua.—*Pertsona onuradunak*

163/2014 dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek eskura ditzakete laguntza hauek Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresek, zeinahi dela ere haien izaera juridikoa, eta banakako enpresaburuak eta profesionalak barne, profesionalak, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek.

Onuradun horiek, gainera, baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoa izatea. Eta, era berean, lantokia ere lurralde horretan izatea.

2. Jarduera ekonomikoetan alta emanda egotea, 2014ko urriaren 1etik 2015ko irailaren 30 arteko epearen barruan, egun biak barne.

Halakoetarako, erakunde bat ez da erakunde onuraduntzat joko, baldin eta erakunde horrek alta eman duen ekonomia-jardueran, IFZ/NAN berarekin, beste erakunde bat egon bada 2015ean edo 2014ko azken seihilekoan jarduera-talde berean baja ematea gertatu bada.

3. Egunean izatea bere zerga-betebeharrak edo indarreko xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekikoak.

4. Ez egotea Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko debekuetan aipatzen diren egoerarikoren batean.

A. Horrez gainera, enpresaburu indibidualak edo profesionalak badira, honako hauek bete behar dituzte:

— 30 urte edo gutxiago izatea jarduera ekonomikoetan alta ematean.

— Langile autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean alta emanda egotea, 2014ko urriaren 1etik 2015eko irailaren 30era arteko epean, egun biak barne.

ORDEN FORAL del diputado foral de Promoción Económica 3174/2015 de 17 de abril, por la que se regula la convocatoria de las ayudas contenidas en el Título III «Ayudas a las inversiones necesarias para la puesta en marcha de la empresa, dirigidas a personas jóvenes emprendedoras», del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 163/2014, de 9 de diciembre de 2014, por el que se establecen las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas por personas desempleadas y en riesgo de exclusión.

El Decreto Foral 163/2014, de 9 de diciembre, del Departamento de Promoción Económica establece las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas por personas desempleadas y en riesgo de exclusión, así en el Título III prevé las ayudas a las inversiones necesarias para la puesta en marcha de la empresa, dirigidas a personas jóvenes emprendedoras.

La disposición final 2.^a del mencionado Decreto Foral establece que la posterior apertura de convocatorias, se realizará mediante Orden Foral del Diputado Foral de Promoción Económica.

Por ello, con objeto de gestionar el programa en el ejercicio 2015 y posibilitar el acceso a las ayudas contenidas en el mismo, resulta preciso establecer la normativa reguladora concreta de la convocatoria de las mencionadas subvenciones para el año 2015.

En base a los antecedentes señalados se realiza la siguiente:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

Artículo 1.—*Convocatoria de subvenciones*

A través de la presente Orden Foral se aprueba la convocatoria de ayudas contenidas en el Título III «Ayudas a las inversiones necesarias para la puesta en marcha de la empresa, dirigidas a personas jóvenes emprendedoras» del Decreto Foral 163/2014, de 9 de diciembre, publicado en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 243, de 19 de diciembre de 2014.

La convocatoria se regirá por lo dispuesto en el citado Decreto Foral, así como por las disposiciones de la presente normativa.

Artículo 2.—*Personas beneficiarias*

De conformidad con lo establecido en el artículo 22 del Decreto 163/2014, podrán acceder a estas ayudas las empresas, cualquiera que sea su forma jurídica, incluidos los empresarios y empresarias individuales, los profesionales, y las comunidades de bienes y sociedades civiles del Territorio Histórico de Bizkaia.

Dichas personas beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

1. Que tengan su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia. Asimismo, el centro de trabajo radicará también en este territorio.

2. Haberse dado de alta en actividades económicas entre el 1 de octubre de 2014 y el 30 de septiembre del año 2015, ambos inclusive.

A estos efectos no tendrá la consideración de entidad beneficiaria, aquella que se hubiera dado de alta en una actividad económica en la que con el mismo NIF/DNI, hubiera existido en el año 2015 o en el último semestre de 2014 baja en el mismo grupo de actividad.

3. Que se hallen al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

4. Que no se vean afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral de Subvenciones

A. Además, en el caso de empresarios/empresarias individuales o profesionales, por su parte deberán cumplir:

— Tener 30 años o menos en la fecha de alta en actividades económicas.

— Haberse dado de alta en el régimen especial de trabajadores autónomos, o mutualidad equivalente en el período comprendido entre el 1 de octubre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015, ambos inclusive.

Hala ere, 2014ko azken seihilekoan edo 2015. urtean ezin izango da bajarik gertatu langile autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean.

- Ohiko bizilekua Bizkaiko Lurralde Historikoan dutela egiaztatzea.

B. Horrez gainera, honako baldintza hauek bete behar dituzte ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek:

- Kide guztiak egiaztatzea ohiko bizilekua Bizkaiko Lurralde Historikoan dutela.
- Gutxienez ere kide bat Langile Autonomoen Araubide Berezian edo antzeko mutualitate batean alta emanda egotea, 2014ko urriaren 1aren eta 2015eko irailaren 30aren artean, eta kide horrek 30 urte edo gutxiago izatea jarduera ekonomikoetan alta ematean.

Hala ere, 2014ko azken seihilekoan edo 2015. urtean ezin izango da bajarik gertatu langile autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko orduan, aurreko para-grafoetako baldintza betetzen duten ondasun-erkidego edo sozietate zibileko kideak bakarrik sartuko dira zenbaketan.

C. Berezko nortasun juridikoa duten enpresek honako baldintza hauek bete behar dituzte diru-laguntzaren onuradun izateko:

- Gutxienez ere kide batek 30 urte edo gutxiago izatea jarduera ekonomikoetan alta ematean, eta kide horrek egiaztatzea ohiko bizilekua Bizkaiko Lurralde Historikoan duela, eta langile autonomoen araubide berezian edo mutualitate baliokidean alta emanda egotea, 2014ko urriaren 1etik 2015ko irailaren 30era bitarteko epean, egun bi horiek barne. Autonomoen araubideko alta ez zaie eskatuko lan elkartuko kooperatibetako bazkideak diren langileei, ezta lan sozietateetako bazkideak diren langileei ere, baldin eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea hautatu badute; halere, alta hori aipatutako epe horren barruan gertatu beharko da.

Hala ere, 2014ko azken seihilekoan edo 2015. urtean ezin izango da bajarik gertatu langile autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean. Lan-sozietateen edo sozietate kooperatiben kide diren langileen kasuan, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean ere ez.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko orduan, aurreko para-grafoetako baldintzak betetzen dituzten langile bazkideak bakarrik sartuko dira zenbaketan.

- 3 langile baino gutxiago edukitzea. Plantillan zenbat langile diren kalkulatzeko, kontuan hartuko da diru-laguntzaren onuradunak zenbat lan-kontratu dituen inoren kontura lanaldi osoan, edo lanaldi partzialean, baina betiere kopuru baliokidean.

Kasu hauetan soilik aldatu ahalko da diru-laguntzaren erakunde onuraduna: subrogazio baten ondorioz enpresa onuraduna desagertzen denean, edo eraldatzen denean, edo legez hala xedatzen denean.

3. artikulua.—Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak

Deialdi honetan, 30 urte arteko gazte ekintzaileek beren negozioa abiarazteko egin behar dituzten inbertsioak dira; horretarako, 2014ko urriaren 1etik 2015eko irailaren 30era bitartean hasi beharko dute jarduera ekonomiko bat lagundu ahalko da diruz.

Ibilgetuan eginiko inbertsio hauek lagundu ahal izango dira diruz, Kontabilitate Plan Orokorrarekin bat:

- 2.0.6. Aplikazio informatikoak.
- 2.1.1. Eraikuntzak (higiezinak erosi eta eraikitzea kanpo gertzen dira).
- 2.1.2 Instalazio teknikoak.
- 2.1.3 Makineria.
- 2.1.4. Tresnak.

No obstante, en el último semestre del año 2014 o durante el año 2015 no ha debido de producirse baja en el régimen especial de trabajadores autónomos o mutualidad equivalente.

- Acreditar residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia

B. Asimismo, las comunidades de bienes, y sociedades civiles, por su parte, deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Todos sus miembros deberán acreditar residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia
- Al menos uno de sus miembros deberá darse de alta en el régimen especial de trabajadores autónomos, o mutualidad equivalente en el período comprendido entre el 1 de octubre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015, ambos inclusive y tener 30 años o menos a fecha de alta en actividades económicas.

No obstante, en el último semestre del año 2014 o durante el año 2015 no ha debido de producirse baja en el régimen especial de trabajadores autónomos o mutualidad equivalente.

Únicamente computarán a efectos del cálculo de la subvención las personas miembro de la comunidad de bienes o sociedad civil que cumplan el requisito de los párrafos anteriores.

C. Las empresas con personalidad jurídica propia, deberán cumplir para ser beneficiarias de la subvención las siguientes condiciones:

- Al menos una de las personas socias trabajadoras deberá tener 30 años o menos a fecha de alta en actividades económicas, acreditar su residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia, y haberse dado de alta en el régimen especial de trabajadores autónomos, o mutualidad equivalente en el período comprendido entre el 1 de octubre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015, ambos inclusive. El alta en el régimen de autónomos, no se exigirá a los socios trabajadores de cooperativas de trabajo asociado, y tampoco se exigirá a los socios trabajadores de sociedades laborales, en el caso que hayan optado a darse de alta en el régimen general de Seguridad Social, no obstante dicha alta habrá de producirse en el citado período.

No obstante, en el último semestre del año 2014 o durante el año 2015 no ha debido de producirse baja en el régimen especial de trabajadores autónomos o mutualidad equivalente, ni tampoco en el régimen general de seguridad social para el caso de socios trabajadores de sociedades laborales o cooperativas.

Únicamente computarán a efectos del cálculo de la subvención las personas socias trabajadoras que cumplan los requisitos de los párrafos anteriores.

- Tener una plantilla inferior a 3 personas. Para el cálculo de la plantilla se tendrán en cuenta los contratos laborales por cuenta ajena a jornada completa, o a jornada parcial equivalente que tenga el beneficiario de la subvención.

Únicamente procederá el cambio de entidad beneficiaria de subvención, en los supuestos de subrogación en los que la empresa beneficiaria se extinga, o se transforme, o en los supuestos en que legalmente así se disponga.

Artículo 3.—Acciones subvencionables

Serán objeto de subvención, en la presente convocatoria, las inversiones necesarias para la puesta en marcha de su negocio, dirigidas a las personas jóvenes emprendedoras de hasta 30 años de edad que inicien entre el 1 de octubre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015 una actividad económica.

Serán subvencionables las siguientes inversiones en inmovilizado, de acuerdo con el Plan General Contable:

- 2.0.6. Aplicaciones Informáticas.
- 2.1.1. Construcciones (excluidas la adquisición y la construcción de inmuebles).
- 2.1.2 Instalaciones Técnicas.
- 2.1.3 Maquinaria.
- 2.1.4. Utillaje.

- 2.1.5. Beste instalazio batzuk.
- 2.1.6. Altzariak.
- 2.1.7. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak.
- 2.1.8. Garraio-osagaiak.

Diru-laguntza kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer balio izan duten inbertsioek eskuratu direnean (BEZa kenduta). Elementu berrietan egindako inbertsioak izango dira, eta honako ezaugarri hauek izango dituzte:

- Harreman zuzena eduki behar dute enpresaren helburu soziala den jarduerarekin.
- Ezin dira izan hirugarrenei lagatako elementuak, berdin dio kontraprestaziorik duten ala ez.
- Enpresa eskatzaileak berak egindakoak ez izatea.

Inbertsio horiek 2014ko urriaren 1etik 2015eko irailaren 30era bitarteko epearen barruan egin behar dira.

4. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea*

Laguntza hauek eskuratu nahi dituztenek eskaria normalizatutako eskabide-orri batean aurkeztu beharko dute. Eskabide-orriaren atal guztiak bete behar dituzten eta hurrengo artikuluan ezarritako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Internet bidez aurkeztu behar dira eskabidea (osorik eta behar den bezala beteta) eta foru agindu honen 5. artikuluan zehazten diren agiri guztiak. Horretarako, inprimaki bat dago Ekonomia Sustatzeko Sailaren web orrian (www.bizkaia.eus/sustapena), eta haren bulego birtuala erabili daiteke eskabidea eta agiriak aurkezteko. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehazten diren gainerako lekuetan ere aurkez daitezke.

Eskabidea aurkezteko epea 2015eko maiatzaren 19an goizeko 8:30etan hasiko da, eta 2015eko irailaren 30ean, 13:30etan, amaituko da.

Eskabideak aurkeztuz, eskatzaileak baimena ematen dio diru-laguntza ematen duen organoari zuzenean lor ditzan abenduaren 9ko 163/2014 Foru Dekretuaren 30. artikuluko azken lerroaldean ageri diren inguruabarren egiaztagiria. Horretarako, dagozkion ziurtagiri telematikoak baliatu ahal izango ditu.

5. artikulua.—*Aurkeztu beharreko agiriak*

1. Laguntza hauek eskuratu nahi dituztenek Ekonomia Sustatzeko Sailaren Erakundearen Erregistroan inskribatu beharko dira aurretik. Erregistro hori apirilaren 1eko 61/2010 Foru Dekretuaren bidez arautu da. Horrez gainera, bertan zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte

Izen-emate hori bulego birtualean egin behar da, diru-laguntza bera eskatu aurretik.

Erregistro horren barruko datuetan edo eskabidean egiaztatukoetan aldaketaren bat eginez gero, Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinarazi behar zaio.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

2. Onuradun guztiak aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Hartzekodun-fitxa: Fitxan adierazitako kontu-zenbakiak eskabide orrian jarritako bera izan behar du. Hartzekodun-fitxaren atal guztiak bete behar dira, eta kasuan kasuko sinadura eta zigilu guztiak eduki behar ditu. Agiri hau www.bizkaia.net web orrian dago, eta diru-laguntzaren eskaera telematikoarekin batera aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

- Egindako inbertsioen behin betiko fakturak.

Bankuko transferentsia bidez edo kreditu edo zordunketa-txartelen bidez baino ezin izango dira ordaindu faktura horiek, inbertsioen justifikazioa baliagarritzat jotzeko. Laguntza justifikatzeko dokumentazio hau, eskabidea egiterakoan aurkeztu ez bada, azken eguna 2016ko urtarrilaren 31 izango da.

- 2.1.5. Otras Instalaciones.
- 2.1.6. Mobiliario.
- 2.1.7. Equipos para procesos de información.
- 2.1.8. Elementos de transporte.

Para el cálculo de la subvención se tendrá en cuenta el valor de adquisición de las inversiones, excluido el IVA. Se tratará de inversiones en elementos nuevos:

- Que estén directamente relacionadas con la actividad que constituye el objeto social de la empresa.
- Que no se hallen cedidos a terceros, con o sin contraprestación.
- Que no hayan sido fabricados por la propia empresa solicitante.

Dichas inversiones deberán haberse realizado en el período comprendido entre el 1 de octubre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015.

Artículo 4.—*Forma, lugar y plazo de presentación de solicitudes*

Quienes deseen acogerse a estas ayudas, deberán presentar la correspondiente solicitud en instancia normalizada cumplimentada en todos sus términos y la documentación preceptiva que se señala en el artículo siguiente.

La solicitud debidamente cumplimentada en todos sus términos y la documentación anexa detallada en el artículo 5 de la presente Orden Foral, deberán presentarse por Internet mediante el formulario que figura en la página Web del Departamento de Promoción Económica (www.bizkaia.eus/sustapena) a través de su oficina virtual, sin perjuicio de la presentación mediante cualquier otro de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día 19 de mayo de 2015 a las 8:30 horas y finalizará el 30 de septiembre de 2015 a las 13:30 horas.

La presentación de la solicitud conllevará la autorización del solicitante para que el órgano concedente pueda obtener de manera directa la acreditación de las circunstancias a las que se refiere el artículo 30 apartado último del Decreto Foral 163/2014, de 9 de diciembre, lo que podrá realizarse a través de los correspondientes certificados telemáticos.

Artículo 5.—*Documentación preceptiva*

1. Quienes deseen acogerse a estas ayudas deberán previamente inscribirse en el Registro de Entidades del Departamento de Promoción Económica, regulado mediante el Decreto Foral 61/2010, de 1 de abril, y aportar la documentación general que en el mismo se especifica.

Dicha inscripción se realizará a través de la oficina virtual, como paso previo a la solicitud de subvención propiamente dicha.

Cualquier modificación de los datos incluidos en dicho registro o acreditados mediante la solicitud deberá ser comunicada al Departamento de Promoción Económica.

A la solicitud habrá de adjuntarse la siguiente documentación:

2. Documentación a presentar, en todo caso, por todas las personas beneficiarias:

- Ficha de la parte acreedora: El número de cuenta reflejado en la misma deberá coincidir con el que se detalle en la solicitud. La ficha de la parte acreedora deberá estar cumplimentada en todos sus extremos, con las firmas y sellos requeridos al efecto. Este documento, que se encuentra en la página web www.bizkaia.net, se deberá adjuntar debidamente cumplimentado junto con la solicitud de subvención a realizar vía telemática.
- Factura/s definitiva/s de la/s inversión/es realizada/s.

El pago de las facturas únicamente podrá realizarse mediante transferencia bancaria o abono con tarjeta de crédito o débito, para que la justificación de las inversiones sea considerada válida. El plazo para presentar esta documentación justificativa, si no se hace en el momento de la solicitud, terminará el 31 de enero de 2016.

3. Diru-laguntzaren onuraduna enpresaburu individual edo profesional bat bada, artikuluko honen 2. atalean azaldutako dokumentazioaz gain, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

- NANaren fotokopia.
- Ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria.
- Langile Autonomoen Araubide Berezian edo kasuan kasuko mutualitatean alta emanda egotearen adierazpena.

4. Diru-laguntzaren onuraduna ondasun-erkidego edo sozietate zibil bat bada, artikuluko honen 2. atalean azaldutako dokumentazioaz gain, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

- Ondasun-erkidego edo sozietate zibileko kide guztien errolda-agiria.
- Erakundearen eratze-agiria.
- Diru-laguntza kalkulatzeko orduan konputatzen duten ondasun-erkidego edo sozietate zibileko kideetako bakoitzaren NANaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzaren Langile Autonomoen araubide berezian edo kasuan kasuko mutualitate baliokidean alta emanda egotearen agiria, diru-laguntza kalkulatzeko orduan konputatzen duten kideetako bakoitzarena.

5. Eskatzailea berezko nortasun juridikoa duen enpresa bat bada, 2. atalean zehaztutako dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Enpresaren eratze-eskritura.
- Diru-laguntza kalkulatzeko orduan konputatzen duten bazkide langileen NANaren fotokopia.
- Enpresaren lan-bizitzaren agiria, Gizarte Segurantzak emana, enpresak bere kargura zenbat langile dituen ziurtatzeko.
- Diru-laguntzaren helburua den 30 urtera arteko kide langilearen errolda-agiria, ziurtatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi dela.
- Gizarte Segurantzaren Langile Autonomoen araubide berezian edo kasuan kasuko mutualitate baliokidean alta emanda egotearen agiria, diru-laguntza kalkulatzeko orduan konputatzen duten pertsonetako bakoitzarena.

Elkartutako lan-kooperatibetako bazkide langileek edo lan sozietateetako bazkide langileek Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea erabaki badute, alta horrek kopia aurkeztu beharko dute.

6. artikulua.—*Emateko prozedura*

Diru-laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidearen bidez emango dira; prozedura hori 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatuta dago.

Hauen ondorioetarako, hau jotzen da norgehiagokarik gabeko prozeduratzat: eskariak jaso ahala banatzea diru-funtsak. Hala, bada, eskabideek Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroan duten sarre-dataren arabera ezarriko da eskarien arteko lehenatasuna, eta, deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurrekontuko hornidurek ahalbidetzen duten bitartean emango dira laguntzak.

7. artikulua.—*Egiteko epea*

Diru-laguntza jasotzen duten inbertsioak 2014ko urriaren 1etik 2015eko irailaren 30era bitartean egin beharko dira.

8. artikulua.—*Diru-laguntza ematea eta errekurtsioak aurkeztea*

Eskabideak banan-banan ebatziko dira, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren esanbidezko ebazpenen bidez. Kasu bakoitzari dagozkion baldintza bereziak ezarri ahalko dira diru-laguntzen eskabideak baiesten dituzten foru aginduetan, eta onuradunek nahitaez bete beharko dituzte baldintza horiek.

Laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen beharrezkoa izango da zerga betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunera arte bete direla egiaztatzea.

3. En el caso de que el beneficiario de subvención sea un empresario/empresaria individual o profesional, además de la documentación descrita en el apartado 2, habrá de adjuntar:

- Fotocopia del DNI.
- Certificado de empadronamiento que acredite la residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia.
- Alta en el Régimen Especial de Autónomos de la Seguridad Social, o mutualidad equivalente.

4. En el caso de que la entidad beneficiaria de la subvención sea una comunidad de bienes, o una sociedad civil, además de la documentación descrita en el apartado 2 del presente artículo, habrá de adjuntar:

- Certificado de empadronamiento de cada uno de los miembros de la comunidad de bienes o sociedad civil.
- Documento de constitución de la entidad.
- Fotocopia del DNI de cada uno de los miembros de la comunidad de bienes o sociedad civil, que compute a efectos del cálculo de la subvención.
- Alta en el régimen de Autónomos de la Seguridad Social o mutualidad equivalente de cada uno de los miembros que compute a efectos del cálculo de la subvención.

5. En el caso de que quien solicite sea una empresa con personalidad jurídica propia, además de la documentación descrita en el apartado 2, deberá presentar:

- Escritura de constitución de la empresa.
- Fotocopia del DNI de las personas socias trabajadoras que computen a efectos del cálculo de la subvención.
- Certificado de vida laboral de la empresa emitido por la Seguridad Social que acredite el número de personas trabajadoras que tiene a su cargo.
- Certificado de empadronamiento de la persona socia trabajadora de hasta 30 años en el Territorio Histórico de Bizkaia por la que se solicita la ayuda.
- Alta en el régimen de Autónomos de la Seguridad Social o mutualidad equivalente de cada una de las personas que compute a efectos del cálculo de la subvención.

En el caso de personas socias trabajadoras de cooperativas de trabajo asociado o de socias trabajadoras de sociedades laborales, que hayan optado por darse de alta en el régimen general de Seguridad Social, copia de dicha alta

Artículo 6.—*Procedimiento de concesión*

Las subvenciones se concederán en régimen de libre concurrencia, previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Se entiende, a estos efectos como libre concurrencia el procedimiento mediante el cual se distribuyen los fondos según se reciban las peticiones, atendiendo al orden prioritario de registro de entrada de la solicitud en el Registro de la Diputación Foral de Bizkaia, y siempre que reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria, hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

Artículo 7.—*Plazo de ejecución*

Las inversiones objeto de subvención deberán ejecutarse, en el período comprendido entre el 1 de octubre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015.

Artículo 8.—*Otorgamiento y recursos*

Las solicitudes serán resueltas mediante resolución expresa e individualizada del Diputado Foral de Promoción Económica. En la Orden Foral por la que se resuelvan positivamente las solicitudes de subvención, podrán establecerse condiciones específicas a cada caso, que serán de obligado cumplimiento por parte de las personas beneficiarias de subvención.

Será requisito necesario para el otorgamiento de la ayuda acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obli-

Edozelan ere, goian aipatu diren inguruabarrak egiaztatzeko, ez da inongo erakunderen ziurtagiririk aurkeztu behar: eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio Ekonomia Sustatzeko Sailari, zuzenean eta telematikoki eskura ditzan inguruabarrok egiaztatzeko agiriak.

Onuradun bati diru-laguntza eman dion foru agindua jakinarazita, hamar (10) eguneko epea izango da hura onartzeko, eta epe horretan ez bada beren-beregi ezer adierazten, isilbidez onartutaz joko da.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.3 artikuluan (ondoren urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatua) xedatutakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunaz gero, sei hilabeteko epearen barruan eman beharko da ebazpena. Aurkeztutako eskabide guztiei buruzko esanbidezko ebazpena emateko eskumena duen organoak ebazpena eman behar badu ere, ebazpena eta jakinarazpena emateko epea amaitu, eta esanbidezko ebazpena eman ez badu, eskabidea administrazio-isiltasunez ukatutzat jo ahalko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatua) xedatutakoaren arabera.

Diru-laguntzari buruzko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du eta haren aurka interesdunek, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke ebazpena eman duen organoari berari edo, bestela, zuzenean haren aurka egin dezakete administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatua) 117. artikuluan eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritako epeetan.

9. artikulua.—Laguntzen zenbatekoa

Diruz lagundu daitekeen inbertsio osoaren gutxieneko zenbatekoa 500 euro izango da.

Emateko diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 3. artikuluan zehaztutako inbertsio-ondasunen inbertsioaren ehuneko 70 ezarztearen ondoriozko kopurua izango da, gehienez 1.700 euro 2. artikuluko baldintzak betetzen dituen 30 urtetik gorako gazte bakoitzeko. Muga: 6.800 euro enpresako.

Diru-laguntza aplikatu behar zaien inbertsio-ondasunak 2014ko urriaren 1etik 2015eko irailaren 30era bitartean erosi behar dira.

Ibilguten inbertsioen fakturak diruz laguntzeko, fakturako inbertsio-elementuen baturak 100 eurotik gorakoa izan behar du (BEZA kenduta).

10. artikulua.—Diru-laguntza ordaintzea eta justifikatzea

Laguntza ematen den unean izapidetuko da diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntzaren betebeharrak aitortu eta hura ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Egiaztapen horren ondorioz, ikusten bada erakunde onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 163/2014 Foru Dekretuaren 37. artikuluan xedatzen den prozedura abiartzeko da, baldintzak ez betetzeagatik.

Eskabidearekin batera aurkeztutako fakturen ordainagiriaren kopiak aurkeztuta justifikatuko da emandako laguntza. Bankuko transferentzia bidez edo kreditu- edo zordunketa-txartelen bidez baino ezin izango dira ordaindu faktura horiek. Laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2016ko urtarrilaren 31 izango da.

11. artikulua.—Programaren jarraipena, ikuskapena eta kontrola

Erakunde onuradunek foru agindu honen 4. artikuluan ezarritzen den eskaerak aurkezteko epean bidali beharko dute eskatutako dokumentazioa Ekonomia Sustatzeko Sailera.

Bestalde, laguntza ematean kontuan hartutako baldintzak funtsean aldatzen dituzten gertakari guztien berri eman behar diote

gaciones tributarias, en su caso, frente a la Seguridad Social. En todo caso, no habrá de aportarse certificación del organismo correspondiente acreditativo de dichas circunstancias, sino que la presentación de la solicitud conlleva la autorización del solicitante para que el Departamento de Promoción Económica obtenga de forma directa la acreditación de dichas circunstancias de forma telemática.

Notificada la Orden Foral de otorgamiento de la subvención se dispondrá de un plazo de diez días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada.

Según lo dispuesto en el artículo 42.3 de la Ley 30/1992 de 26 de Noviembre, modificada por la Ley 4/1999 de 13 de Enero, la resolución será dictada en el plazo de seis meses a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme al artículo 44 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

La resolución de la solicitud de subvención agota la vía administrativa y contra la misma los interesados podrán interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano que la dictó o ser impugnadas directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, en los plazos previstos en los artículos 117 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, modificada por Ley 4/99 de 13 de enero, y en el artículo 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio.

Artículo 9.—Cuantía de las ayudas

El importe mínimo de la inversión total subvencionable será de 500 euros.

El importe máximo de la subvención a otorgar será la cantidad resultante de aplicar el 70 por ciento a la inversión en los bienes de inversión detallados en el artículo 3, con un máximo de 1.700 euros por persona joven de hasta 30 años que cumpla los requisitos del artículo 2. El límite será de 6.800 euros por empresa.

Los bienes de inversión sobre los que se ha de aplicar la subvención deberán haber sido adquiridos entre el 1 de octubre de 2014 y el 30 de septiembre de 2015.

Únicamente serán subvencionables las facturas de las inversiones de inmovilizado en las que la suma de los elementos de inversión en la factura supere la cuantía de 100 euros (IVA excluido).

Artículo 10.—Pago y justificación

El abono de la subvención se tramitará en el momento de concesión de la ayuda.

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social se iniciará el procedimiento de incumplimiento establecido en el artículo 37 del Decreto Foral 163/2014.

La ayuda otorgada deberá justificarse mediante la presentación de la copia de los comprobantes de abono de la/s factura/s aportadas junto con la solicitud. El pago de esas facturas únicamente podrá realizarse mediante transferencia bancaria o abono con tarjeta de crédito o débito. El plazo para presentar dicha documentación justificativa terminará el 31 de enero de 2016.

Artículo 11.—Seguimiento del Programa. Inspección y Control

Las personas beneficiarias deberán remitir al Departamento de Promoción Económica la documentación solicitada, en el plazo de presentación de solicitudes que se señala en el artículo 4 de la presente Orden Foral.

Por otra parte, quedan obligadas a comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente las condiciones del otorgamiento,

Ekonomia Sustatzeko Sailari, eta harekin batera lan egin beharko dute egiaztapen, jarraipen eta kontrol prozeduretan.

Ekonomia Sustatzeko Sailak abenduaren 9ko 163/2014 Dekretuan ezarritako helburuak lortuko direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen eta kontroleko ekintza guztiak egin ahal izango ditu.

12. artikulua.—Emandako diru-laguntzen publikitatea

Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez, deialdi honetan emandako diru-laguntzen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin aginduko da, haietako bakoitza zein programa eta aurrekontuko kredituri egozten zaion adierazita. Horrekin batera, erakunde onuradunen zerrenda eta zer kopuru emango zaizkien ere publikatuko da.

13. artikulua.—Elkarrekin finantzatzea

Foru agindu honetan xedatutako diru-laguntzak Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa ere jaso dezakete, enplegu-aukerak, enpresa-espiritua eta moldagarritasuna, eta aukera-berdintasuna bultzatuz eta giza ballabideetako inbertsioa sustatuz enplegua garatzen laguntzea baita funts horren xedea.

2013ko abenduaren 20an Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Araudian xedatutakoa betetzeko, adjudikazioari buruzko foru aginduan emango zaie onuradunei kofinantzaketa horren berri, baina Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 17.3. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Baldin eta 2014-2020ko Europako Gizarte Funtsaren Programaren barruko kofinantzaketa gauzatzen bada, EGFren kofinantzaketa ere aipatu beharko da laguntzen komunikazio-ekintzetan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.—Indarrean jartzea

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.—Aurrekontuko diru-izendapena

163/2014 Foru Dekretuaren 4. azken xedapenean xedatutakoarekin bat etorrira, foru agindu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak jarraian adieraziko diren aurrekontuko partiden eta diru-izendapenen kontura ordainduko dira. Nolanahi ere, partida eta diru-izendapen horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahalko dira.

Partida: 0806/G/320203/74300 2008/0075:

— 2015. urteko gastua: 200.000 euro.

Partida: 0806/G/320203/74900 2008/0075:

— 2015. urteko gastua: 100.000 euro.

Ezarritako kreditu-muga dela bide, horretan dauden ekonomi baliabideek ahalbidetzen dituzten laguntzak bakarrik sar daitezke deialdi honen babesean.

Bilbon, 2015eko apirilaren 17an.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

(I-767)

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 21ekoa. Honen bidez, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten da

Oinordetza eta Dohaintzen Gaineko Zergari buruzko 2015eko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauak pertsona fisikoek dohaintza lortzen dituzten ondare-gehikuntzak kargatzen dituen zerga honen arau-esparru berria jasotzen du.

así como a colaborar con el Departamento de Promoción Económica en los procedimientos de comprobación, seguimiento y control.

El Departamento de Promoción Económica podrá realizar las acciones de inspección y control necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas en el Decreto 163/2014 de 9 de diciembre.

Artículo 12.—Publicidad de las subvenciones concedidas

Mediante Orden Foral del Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, se ordenará la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», del extracto de las subvenciones concedidas correspondientes a la presente convocatoria, con expresión del programa y crédito presupuestario al que se imputen, así como el listado de las entidades beneficiarias y cantidad concedida.

Artículo 13.—Cofinanciación

Las subvenciones contempladas en la presente Orden Foral podrán estar cofinanciadas por el Fondo Social Europeo, cuyo fin es contribuir al desarrollo del empleo impulsando la empleabilidad, el espíritu de empresa y la adaptabilidad, la igualdad de oportunidades y la inversión en recursos humanos.

En cumplimiento de lo establecido en el reglamento 1303/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo de 17 de diciembre de 2013, publicado en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 20 de diciembre de 2013, de dicha cofinanciación se informará a las entidades beneficiarias en la Orden Foral de adjudicación, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En el caso de que la cofinanciación por FSE en el marco del Programa Operativo FSE 2014-2020 País Vasco se llevara a término, habrá de mencionarse la cofinanciación del FSE en las acciones de comunicación de las ayudas.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Entrada en vigor

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Segundo.—Consignación presupuestaria

De conformidad con la Disposición Final 4.ª del Decreto Foral 163/2014, las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo a la presente Orden Foral, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

Partida: 0806/G/320203/74300 2008/0075:

— Gasto anual 2015: 200.000 euros.

Partida: 0806/G/320203/74900 2008/0075:

— Gasto anual 2015: 100.000 euros.

En virtud del límite de crédito consignado, únicamente podrán acogerse al amparo de esta convocatoria, las ayudas que permitan las disponibilidades económicas existentes.

En Bilbao, a 17 de abril de 2015.

El diputado foral de Promoción Económica,
IMANOL PRADALES GIL

(I-767)

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 58/2015, de 21 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones

La Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, contiene el nuevo marco normativo de este Impuesto que grava los incrementos patrimoniales obtenidos a título lucrativo por personas físicas.